



Iturria: *Euzko-Gogoa*, 1955eko maiatza-abendua
(<http://www.armiarma.com/andima/eugo/eugo27/eugo2753.htm>).

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LabaienJostuna.htm>

JOSTUNA

Antonio Maria Labaien

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

JOSTUNA

Bi ekitaldilan Antzerkia neskatxa bakarrentzat

Zipitriatar Elbire andereñoari

Komeri bat neskatxa bakarrentzat eskatu zidaten, eta ona emen atera zaidana: JOSTUNA. Ez dakit gaia ondo ikusi ta aukera dudan; are gutxiago aria erabilliaz zuta ta zearra zuzen neurtu, egoki josi ditudan ertz guziak tolesturik. Irakurle-ikusleak esan bearko dute.

Onoko egille au, gizonezkoen baldarrea noski, emakumezkoen jarduna alik eta ondoen burutzen alegindu da. Or konpon beraz. Berak, nere utsegite ta akatzak leundu ditzakete, nere asmamen motelari bizia eman ez.

Neskatxa bakarrak ala mutil utsekin teatro-lan bat bilbatu ta tajutzea ez dala gauza erreza aitor bear dizuet.

Ori, pianoa eskubi ala esker esku bakarrekin jotzea bezela dezute. Eskuok orduan beren lekutik kanpo ibilli bear dute bakarrak bien lana egin dezan; nolabait ipuia osotu ta borobildu dedin.

Dana dala, antzerki auxe atsegin ba zaizue eta jendeen aurrean azaltzeko din dala ba-derizkiozute, nere lantxoarentzat ori izango zait saririk ordaingarriena.

Egilleak

LUTXI: Jostuna 25 bat urtekoa.

FILO: Aixpa gazteagoa.

DOMINI ANDREA: Ama 60 urte inguru.

ERROXALI: Neska zarra Markes baten etxean giltzazai dagona.

XATUR: Neskatz-pelotaria Lutxi ta Filoren laguna.

SOR PAULA: Monja Andre Dominiren aizpa zarra.

Gertakizuna orain-oraintsu Gallarreta errian eta Madriden.



LENENGO EKITALDIA

I. AGERRALDIA

(Jostundegia Lutxiren etxean. Barnean josteko makinaren otsa entzun bedi. Gelan bear diran mai, esertoki, arasa eta abar. Ate bi: bata kalera daramana eta bestea etxe barnera).

ERROXALI ETA LUTXI

ERROXALI: Geiago ezin dedalako etorri naiz. Amabost egun barru nere etxeoandre markesak urteroko jaija ematen du Donostian, eta egun ortarako nai ta naiezkoa zait zuk soñeko ori gertutzea...

LUTXI: Orratx bada, ez dizut itzik ematen. Ez, ez!...

ERROXALI: Ezetz? Auxen da lanbidea... Tira, tira!

LUTXI: Lanbidea jostun izatea da erri ontan, eta lanez leporaño josita urte sasoi ontan. Andramaritako bakarrik agindua dauzkatenaz ez dakit nola ibilliko naizen bukatzeko.

ERROXALI: Ni ez al nazu utziko lotsagarri, markesaren giltza-zaia...

LUTXI: Guziok batera etortzen zerate eta iñork ez itxoin nai.

ERROXALI: Ez da soñeko berria; baizik-eta markesak igaz eman zidana. Zerorrek ikusiko dezu. Oso seda onekoa, ori bai kanela-kolorekoa. Ementxe ekarri dizut. *(Pakete batetik azkatuaz).*

LUTXI: Naigo det ez ikusi, erriko festak igaro arte...

ERROXALI: *(Zabaldu ta erakutsiaz)* Ez du asko antola bearrik: gerria pixka bat igo, gona zerbait moztu, atzealdetik atera, aurretik berriz lasatu, kolkoa zabalxeago, beso-mangak laburtu japonesa eran. *(Au guzia parregarri esan beza esaerai dagokien kiñu ta itxurak egñiez).*

LUTXI: Ez dezu gutxi nai...

ERROXALI: Ez da ezer zuk dituzun esku trebeentzat. Oso «xik» geldituko zait. Jende aundia biltzen da gure markesaren jai-egunean, eta guziok galdegingo didate: «Nork josi dizu soñeko «liluragarri» ori? Ta nik: «Lutxik!»

LUTXI: Orratx! Ezin esan ezetz... Auxe da lanbidea gurea!

ERROXALI: Ez esan orratx eta ar zazu titare ta jostorraz... baiezkoa emango didazula ba-dakit.

LUTXI: Begira, Erroxali, etorri zaite datorren astelenean. Aste au oso txarra degu. Gauerdi arte ari gera lanean, eta eldu dan astean zer lan gelditzen zaizkigun ikusita...

ERROXALI: Neri egiten didazuna ez da izango musutruk. Ain zuzen egun ortan beti izaten da gure etxean markesaren modista, Madriden, dan onentxoena, eta nai nuke berak lenago jositako soñekoa, nola eraberritu didazun ikusi dezan. Zuretzat maistra ona litzake andre ori. Eta bein baño geiagotan bururatu zait arengana joan bear zenukela ikastera. Azken azkeneko modak..

LUTXI: Ez dago gaizki esana. Zure asmo onak dirala-ta ezin utziko zaitut zure soñeko kutun au gabe. *(Soñekoa zabaldu ta aztertuaz)* Gai onekoa da.

ERROXALI: *(pozik)* Ederki, Lutxi! Guziz maitagarri ziñala ba nekin eta orain arego. Ez naiz aztuko zutzaz. Eta *(gaiztakeriz belarri-
ra)*... beste senargai bat lengoa baño ohea opa dizut...

LUTXI: Ez zaidazula aitatu. Aski izan det batekin.

ERROXALI: Emengo mutillekin ezkondu baño... obeto dago bat dagon bezela.

LUTXI: Gaizkitxo bizi zera!

ERROXALI: Erroxali «Errementariko» alabak, ez du iñon inbidirik.

LUTXI: Eta kanela-kolorezko soñeko apain orrekin ministruak ere begiekin jango zaitue.

ERROXALI: *(par egñiez)* Ezta arroza esneakin ba-nintz ere!

LUTXI: *(Soñekoa aztertuaz)* Pampoxa geldituko zaizu.

ERROXALI: Beti amabost! Au poza nerea! Astelenean emen nazu probaketa egitera.

LUTXI: Ez ain aguro. Astelenean jostunak ere jai bear genuke, zapatariak bezela.

ERROXALI: Ez, zuk txintxo lan egingo dezula ba-dakit. Zapatariok or kompon. Ez zait ajolik. Ba-ditut kokodreilo-larruzko oñetako batzuek bikañak! Nere etxeoandreak emanak, estuegiak bai-zitun! Ori larrua *(Pozik)*

Eta krixkitin kraxkitin arroxka krabelin.

Bañan noan! Etxean zai dauzkat-eta. Astelen arte! *(abituaz)*

LUTXI: Zoaz bada ondo. Etorri arte *(atera lagunduaz).*

ERROXALI: Ortan gelditzen gera, beraz. Ariyo!



LUTXI: Agur terdi «poxpolin» (*Erroxali bijoa*)

II. AGERRALDIA

LUTXI ETA ANDRE DOMINI BERE AMA

DOMINI ANDREA: Beñere ez zijoala uste nuen.

LUTXI: Ezin bidaliko nuen kalera.

DOMINI ANDREA: Zer bear zuen orrenbeste algaraz?

LUTXI: Emen utzi didan soñeko au antolatzea.

DOMINI ANDREA: Ez zenion artuko?

LUTXI: Erreza zegon ukatzea. Nori eta Erroxaliri! Erriko jaien ondoren zerbait egingo diot. Bestela ez bait-nau pakean utziko.

DOMINI ANDREA: Bañan, Lutxi! Nundik atera bear dezu astia? Ea berriz ere gaixotzen zeran. Ez du balio lanean lertzeak.

LUTXI: Egia, ama; beti gauza batzuek josten aspertu naiz. Orrela ez degu irabazten, ez ikasten, ez. Zerbait geiago nai litzake. Erroxaliren soñekoa bestelakoa da. (*Amari erakutsiaz*) Modista aundiak nola lan egiten duten ikasteko gogotan nago. Ez naiz beti emen sarturik egongo. Ikasi nai det, irabazi, aurrera atera...

DOMINI ANDREA: Ez zaudete ni bezela oituta. Josten asi nintzanean, soñeko guziaren itxura ta jostea, botoi ta guzi, zortzi peseta ala amar geienaz kentzen genuen.

LUTXI: Orrek ez du ezer esan nai, amatxo. Amonaren demboran berriz errealka kontatzen omen-zuten. Zuenean pesetaka; gaur duroka eta laister millaka.

DOMINI ANDREA: Gero ere jostunak ez dira aberastuko. Lan asko zorretan uzten bait-dute... Ez derizkiot gaizki, ikastea, kampa ateriaz. Nere ondoan nai ziñuzket beti; baiñan ez det alaben etorkizuna galerazi nai. Nork zaitue bada amak aiñia maite?... (*malkoa dariola*).

LUTXI: Ama! (*Musu enatera joanez*) Ez gaitzen goibeldu. Onelako eguraldi alaia dago-ta.

DOMINI ANDREA: (*Alaituaz*) Arrazoi dezu. Jainkoak lagunduko gaitu. Zoaz barnen orretera. Zenbait puska erdi-bukaturik utzi ditut. Joxepaneko gona beltza puntada batzuen paltan

dago. Bluxa, berriz, albañan oraindik. Filotxok onuzkero itzuli bear zuen. Etorri-ala, jarrai dezala.

LUTXI: Bai ama. Banoa. Jai oietako ainbeste lan bildu baitzaigu (*etxe barren sarturik*).

DOMINI ANDREA: Lena aski ez dala. Erroxaliren soñekoa. Noiz etorriko ote zaio zentzua neskazoro orri?

LUTXI: Ama! Gabe bizitzea onena.

DOMINI ANDREA: Bai, al bada (*ateruntz begiratu*)! Atean norbait dala dirudi Filotxo izango da.

III. AGERRALDIA

AMA ETA FILOTXO

(*Au kanpoko atetik sarturik*).

FILO: Izebari itxoiten egon naiz eta berandutu egin zait. Oraindik an gel-ditu da Mari «*Begjokerrenean*»...

DOMINI ANDREA: Esango zenion etortzeko?

FILO: Bai, ama! bañan alperrik... Aspaldi errian izan gabea dala-ta, ezagun guziekin gelditzen da. An utzi det; eta paketeak ekarri ditut. (*Puska batzuek mai gainean jarririk*). Etorriko al da nai badu. Bidea ba-daki...

DOMINI ANDREA: Kampanoan luzaro bizi diranai ez dakit zer gertatzen zaian! Erri ta erritarrok maitekirogo begiratzen dituztela guk baño. Zera... zeñekin geldituko-ta *Begjekarreneko* Marikin. Gure monjatxoari komentuan ainbeste urte eramanagatik ez zaizkio lagun zarrak aztu.

FILO: Ni ere pozik aterako nintzake erritik, zerbait ikusteagatik.

DOMINI ANDREA: Eta etxeko lanak nork egin bear ditu? Amak? Ederki eman ere! Zoaz zoaz aizpa laguntzera, eskubete eginkizun ba-dezute-ta biontzako.

FILO: Ortara ninjoan bada (*Abituaz*).

DOMINI ANDREA: Aizu, Filotxo?

FILO: Zer, amatxo?

DOMINI ANDREA: (*Beregana etorri-araziz*) Zer gertatzen zaio Lutxiri?...

FILO: Gertatu? ezer ez! ez dakit beintzat.



DOMINI ANDREA: Bai, zerbait ba-du, goibel arkitzen det; naigaberen bat ba-ote dun nago, esan nai ez didana. Zuk jakingo dezu.

FILO: Bai zera! uskeriren bat

DOMINI ANDREA: Senargaiarekin asarretu al da edo?... Esaidazu egia

FILO: Ba, ama... senargaia aitatu dezun ezker, Xabierekin oztu egin dala uste det.

DOMINI ANDREA: Zerbait ba-zala esaten nuen. Ez da gure Lutxiren errua izango, ez. Ni ere gaztea izana naiz. Gizonezkoekin ez da gauza onik. Gure aizpak asmatu zuan monja joanakin. Obe dezu zuk ere gerora komentuan sartu. Jainko maitea!

FILO: Ez nago orretarako, ez enetxoa!

DOMINI ANDREA: Orduan zoaz, barren ortara lana aurreratzera ta aizpaxoari poztasun zerbait ematera.

FILO: Bai, bai, amatxo; bañan etzaiozula Lutxiri aitatu nik ezer esan dizudanik; alegia... nobio kontu ori... (*bijoa*).

DOMINI ANDREA: Ez, maite, ez! ba-det beste egitekorik. Orain zure izeba Sor Gibel-Aundiri itxoin. Noizbait etorriko al zait. Jainko maitea! (*asperen egñez eseri bedi*).

IV. AGERRALDIA

DOMINI ETA SOR PAULE

SOR PAULE: (*Sarturik*) Emen naiz, aizpa. Ez ziñan aspertuko neri itxoi-tez?...

DOMINI ANDREA: Ortxe nunbait. Pazientzia galdu badet, zurea da errua... eta pekatua...

SOR PAULE: «Ni pekataria» esango dizut. Ez asarretu, beintzat.

DOMINI ANDREA: Asarretu ez, bañan luze-iritzirik nengon zure gibela dala-ta. Komentuan patxarako emakumea egin zera.

SOR PAULE: Nerekin batera monja sartzea zenun zuk ere.

DOMINI ANDREA: Oraintxe esan dezu egi aundia. Lasago bizi zera gu baño. Ordu erdi ontan zai naukazu.

SOR PAULE: Berandutu egin zaidan ezker, gabiltzan astiro. Latiñez ala diote: *Festina Lente* «mugi zaitte astiro». Pizka batean eseritzera noa.

DOMINI ANDREA: Oraintxe jo didazu arpa!

SOR PAULE: Ba al dakizu zer gertatzen dan, aizpa biotzekoa. Bada, gu monja sartzekoan, guzia utzita joan bear izaten degu: etxe, guraso, senide, ezagun, lagun, abar eta abar. Komentuan, berriz, besteren esanera gaude: ez borondate ta ez diru.

DOMINI ANDREA: Jaten ematen dizute, eta gutxi al da. Bego gañerakoa, or konpon!

SOR PAULE: Ortan munduan aiña estuasun komentuan nagusi diranak izan oi dute. Ez dakizu ondo. Guziok ere, orde, txarrera oitzen gera, eta iñoiz gure bizimodu latza arintzen ba digute, jaitxo bat degula, Ama nagusiaren urtebetetzea edo antzekoa, zerua iruditzen zaigu.

DOMINI ANDREA: Munduan, berriz, pozago gaudenean, orduan eta larritasun geiago datorkigu. Alabak azi baditut, laister ezkon bear ditut...

SOR PAULE: Zergatik ori?

DOMINI ANDREA: Ba-dakizu, gure Lutxik senargai on bat ba-duala... edo ba-zuala...

SOR PAULE: Bai; eta zer?... Jainkoak beste bidera deitu al-du?

DOMINI ANDREA: Debruak dala esango nuke. Asarretu egin bait-dira; eta, jakiña., naigabea etxe guzian sartu zaigu.

SOR PAULE: Gazteen gora-berak...

DOMINI ANDREA: Bai, oso bera... eroriak gaude.

SOR PAULE: Altxako zerate.

DOMINI ANDREA: Ez da errez. Gure Lutxi lanerako batere gogorik gabe nabaitzen det, etxetik alde egiteko gogoz.

SOR PAULE: Ez naiz arritzen. Gañera etxetik ateratzeak ez lioke kalterik egingo. Tokiz aldatzea, gogoz aldatzea bait-da. Jainkoaren bideak dira guziak.

DOMINI ANDREA: Ori esan bear diozu berari. Eta ama geldituko da emen alaba gaztearekin bakarrarekin... Ez, ez

SOR PAULE: Ez dezu zerekoi izan bear. Lutxiren zoriona zurea izango da.

DOMINI ANDREA: Monjak oso errez antolatzen dituzte gauzak. Alabak ez dira aingeru, Sor Paula.

SOR PAULE: Ez gu ere, Domini, aingeru eroriak ez bada... bañan egoak ditugunak Jainkoagana igo gaitezen.

DOMINI ANDREA: Sermoigille ona zaude zu; bañan orain goazen gure ikustaldia egitera. Gero jarraituko degu itz-aspertua...

SOR PAULE: Zure esanera nago aizpa; atsedean pizka bat artu det. Joateko gertu naukazu (*jeikiaz*). Ez neri aitzekirik eman.



DOMINI ANDREA: Goazen bada. (*bjoaz*)

V. AGERRALDIA

XATUR BAKARRA

(*sartuaz*) (*jostari*).

Naiago det ez nauten bi aizpek ikusi. Batik-bat Sor Paulek... Monja oiek guzia jakin nai izaten bait-dute... Pelotari naizela bada daki ta Madriden bizi naizela bera bezela. Galdegin naiko lidake etxea nun dedan, elizara joaten ote-naizen, zer lagun ditudan. Ba, ba, «Libertadia zeñen eder den!» Pelotalekura ezin etorri da ikus-mirara, monja dalako. Bestela... (*Txalo batzuek joaz eta otsegiñik*)

Eh! eh! Lutxi! Filoo! beti lanean aritu bear al-dezute?

VI. AGERRALDIA

XATUR ETA FILO; GERO LUTXI

FILOTXO: (*Jostundegiko atetik begratuz*) Xatur da-ta. I al intzanan, neska, orrenbeste istilluekin?

XATUR: Ni berbera. Xatur: ezur eta mami. Filo! (*musu emanez elkarr*).

FILO: Ezur geiago ekarri den mamia baño. Ez al diton Madrilen jaten ematen edo zer?

XATUR: Lirañago natxion pelotan jokatzeko. Ortarako gerria bear den estutu. Ez zuek bezela beti lanean eserita eta sakela gizentzen.

FILO: Lan asko bai, diru gutxi ordea... eta naigabeak ugari.

XATUR: Nun diñagu Lutxi?

FILO: Gona batzuek bukatzen, beti presaka...

XATUR: (*Jostundegira joanez*) Itxoingo diton, emakume! eta bestela or, konpon; shorten jantzita ibiltzea diton...

LUTXI: (*Sartuaz*) Au Xatur ajolagabea! (*musu emanez*) Zer modu? Guziak pelotari dirala uste al-den?

XATUR: Zuek ikustera etorria, eta erriko jaietan jolastera.

LUTXI: Gureztat ba-dakin, erriko jaiak izaten dirala okerrenak. Ezin, bada, bezero guziekin kumplitu. Dagonerako asper-asper egiña natxion...

XATUR: Nai dezutelako. Komeni zaizuen lana artu, ta gañerakoa utzi; «dejada» egin, pelotariak bezela.

LUTXI: Jostunak ez gaitun pelotari. Guk ezin tongorik egin.

FILO: (*Aizpari*) Onek ez zekin, itxoiten daudenak gañetik botatzea gaitza dala. Euli-mandoak ez diton itsasgorrago...

XATUR: Orduan aztu ditzagun estuasun oiek. Zer berri dabil errian?... Noiz eskontzen zaigu Argindegiko Mirentxu?

FILO: Laister, diotenez. Arropa guzia gerturik zeukan. Ta nolakoa, gañera!

XATUR: Eta noiz da irea Lutxirena? Ez didan ezer esaten, neska!

LUTXI: Ez esateko ohea den.

XATUR: Ain epel al-zaudete?

LUTXI: Epel ezik, otz ere bai... Izotzetik bera...

XATUR: Asarretu egin al-aiz Xabierekin edo zer? Uskeriren bat...

LUTXI: Eorrek esan den.

FILO: Adiskide dira oraindik, baiñan bakoitza bere aldetik.

XATUR: Oraingo moda berria den ori...

LUTXI: Ez, ez; benetan amaitu den elkarren arteko adiskidetasuna; eta ez diñagu ezkontza-kompromisorik. Urrengo batean esango diñat zeatzago.

XATUR: Oso gogoko ez baden, ederki egiña. Gazte aiz, eta ez zain palta-ko beste proportzioren bat.

LUTXI: Gabe ere etsiko diñat.

FILO: Mutillai ere ain arreak ez izaten erakutsi bear zaien. Munduan berak bakarrik al dituen nagusi, edo zer?...

XATUR: Ori! ori! Filo! gogor! Ik aterako ditun eltzetik babak.

LUTXI: Ik nereak atera dizkidan, beintzat... Eorrenak ondo isilik gorderik dauzkan. Zer bizimodu Madrid-aldean? Ez al-den adiskide miñik egin?

XATUR: Adiskide miñik ez; guziak motelak atera zaizkidan. Mutillak eza-gutu bai, erruz! baiñan «kutunik» ez.

FILO: Zertan aritzen zerate, bada, an?

XATUR: Nere lan eta jokutik kampa, batek nai duan lekura: berbenak dirala, dantza dala, zinea dala, kaletan ibiltzea eta abar. Erretiroko egurastokira eguzkia artzera ere bai. Iñori bai-menik eskatu gabe. Ura edertasuna! «Madridetik zerura» esan oi-diten.



LUTXI: Inbiria sartzen ari azait, Xatur. Emen erri txiki batetik atera gabe bizitzea, gauza motza bait-den.

FILO: Donostira ez al-gaitun joaten, bada? Politagoa den Madrid baiño.

XATUR: Ez den gauza berdiña. Bestelakoxea den Madrid, bein ango bazterrak ezagutu ezkerro. Guzirako: Ikasteko, irabazirako ta jolaserako.

FILO: Gastatzeko ta dirua xautzeko ere bai.

XATUR: Jakiña! baiñan Lutxik ditun buru argi ta esku trebeekin edozein moda-etxetan artuko liteken, eta ondotoxo ordainduaz gañera...

LUTXI: Orrek losintzatzen natxionan. Orretzaz itzegin bear diñagu.

XATUR: Eta an ikasiko ukena?...

LUTXI: Emengo lanak amaitzean, ez diñat berririk artuko. Ez ta ez ta ez!
Eta negu aldan Madridera Xaturekin.

XATUR: Nere poza! Ez gero atzera egin.

LUTXI: Gure ama konbentzitzea ain errez balitz...

FILO: Bai bai, Lutxi. Orrela aztuko ditun naigabeak.

LUTXI: Aizpa! utzi ditzagun ametsak. Ezin aztu diñaguna zera den... or barruan oraindik josi ta bukatzeko dauzkagun puskak. Emen berriketan ari gaitun, Xatur. Mingaiña arin, eta jos-torrataz geldi. Au ez den lan egitea, ler egitea baizik.

XATUR: Zuek dezute errua.

LUTXI: Goazeman, goazen barrura! Or ikusiko den gure «errua» eta lan pillia ederra. Guzia utzita joango niñuken, ez Madridera baita Pekiñera ere

FILO: Atean deika ari dirala zirudin (*ateruntz*).

LUTXI: Oa, bada, irikitzera. Beste bezeoren bat reklamatzera. Etxean ez nagola esan. Goazen, Xatur (*barrura joanez*).

XATUR: Bai; nik ere esan bear dizkiñat aizparen aurrean aitatu nai ez nizkiñanak (*bijoaz*).

VII. AGERRALDIA

FILO ETA ERROXALI

FILO: Aurrera! Zu al-ziñan, Erroxali?

ERROXALI: Neroni bai, gazte; zure aizpari ajola aundiko gauza bat esatea aztu egin bait-zait. Nun degu Lutxi?

FILO: Oial-muestra batzuek ikusten ari da. Lanpetua dago kampoko andre batekin.

ERROXALI: Ba, nik ere nere «kanela»-kolorezko soñekoari apaingarria nun jarri, aztu egin zait esatea. Ondoena uste det paparran gaiñean eskubi aldean izango dala; karda-lorea modukoa.

FILO: Esango diot. Baiñan aundiegia ez ote-da? Obe dezu lore zuri bat ipiñi. Ez al derizkiozu?

ERROXALI: Ez dakit bada. Zuria ta kanela, arroz-esnearen itxura artuko det.

FILO: Erriko pestetako ezin eta jatorrago.

ERROXALI: Zu txantxetan ari zera, baiñan nik jantxi ori Markesaren etxerako det; eta edozein «tualetekin» ezin joango nazaizu.

FILO: Zure korputz lirañak edozein soñekori ematen dio grazia, azukre ta kanelak edozein janariri bezela.

ERROXALI: Modistetako balio dezu, losintzatzen gogoz ari zera.

FILO: Gustorago ariko nintzake «arroz-esnea» jaten. Gozo-zale bait-nazu.

ERROXALI: Gaztetxoa zera funtsez itzegiteko. Obe izango det neronek zure aizpari esatea. Ea lenbaitlen deitzen diozun.

FILO: Lanpetua dagola-ta, ezin atera ditekela esan dizut bada...

ERROXALI: Zu oso *gogaitkarri* zaude lelo orrekin.

FILO: Zu, berriz, *xarmangarri* soñeko kanela-kolore orrekin. Ba-zaude pixka baterako. Ez, datorren aste guzian beinik bein.

ERROXALI: Ez badakizu ere, zure aizpak itz eman dit.

FILO: Arek emango zizun «itz» baiñan nik egin bearko det «pitz», punta-dak eman eta eman... amaitu arte.

ERROXALI: Nere soñekoak ez du orrenbeste lan. Gure markesaren jai egunerako nai ta nai ez bear det.

FILO: Beste soñekorik ez dezu izango jartzeko-ta.

ERROXALI: Ori bai. Ez zait palta jantzirik, baiñan jai ori gaez da, ta seda orrek dirdai berezia dizu.

FILO: Nere aizparekin antolatuko zera. Edo bestela nere amarekin... (*Ateruntz begratuaz*) Oraintxe dator bera kaletik izeba mojarrekin. (*Atean dira*) Itzulia uste baño lenago egin dute

ERROXALI: Aspaldiko ezagunak ditut biak! Ama, ezkondu aurretik; ta izeba moja, Madrilen maiz ikusten det. An duten kolejioa gure etxetik berta dago.



FILO: Ainbat obeto, Erroxali. Orduan emen uzten zaitut, zerori bakarrik.
Naiago det emen arki ez nazaten. Lan asko degu or barruan.
Gure amarekin antolatuko zera.

ERROXALI: Igesi zoaz, e?

FILO: (*Joanez*) Ez, ez, lanera! Gero arte!

VIII. AGERRALDIA

ERROXALI, ANDRE DOMINI TA SOR PAULE

(*sarturik*).

DOMINI ANDREA: Arratsalde on, Erroxali!

SOR PAULE: Ave, Maria!

ERROXALI: Baita zuei ere (*elkar agurtuaz*). Zer modu?

DOMINI ANDREA: Kaletik itzulia egin degula. Bañan gure etxean ez al-dizu iñork jaramonik egin?

ERROXALI: Oraintxe alde egin dit zure alaba gazteak. Lutzikin itzegin nai nukean, bañan ain lanpetua omen-dago; beste egunen batean etorriko natzaio.

SOR PAULE: Alaxen da, bai.

ERROXALI: Badakizu, trapu-kontua..

SOR PAULE: Amaika lan ematen du «trapu»-kontuak munduan.

ERROXALI: Ez zuek bezin errez erabakiko bagenu soñeko ta moda-«arazoa»...

DOMINI ANDREA: «Moda»-arazoa ta gañerakoak... (*jan-kiñua egñiaz*).
«Habitua» jantzi ta eskera!

SOR PAULE: Nere aizpak nola astintzen gaitun moja gaizoak.

ERROXALI: Astindu, bai; bañan gero zuen sakela bete ere bai.

SOR PAULE: Egia da, eta eskerrak ematen dizkiot. Guk ere zerbait «pasa» bear degu munduan eta ez dakizute buruko au (*toka ikutuaz*) lotuta eramatea zer dan. Uda ta negu jantzi latz au ere soñean eraman-bearra gauzarik aspergarriena.

DOMINI ANDREA: Zuek ere zerbait bear dezute.

ERROXALI: Sor Paulek arrazoi du. Ez nuke beti jantzi batekin ibilli nai. Soñekoz aldatzean badirudi bat gaztetzen dala. Neretzako atsegiñena, goizean bat eta arratsaldean bestea jaztea.

Kolorea ere egunari ta aroari dagokiona. Bein urdina, urrena zuria. Ain zuzen zure alabak «kanela»-kolorezko sedazkoa antola bear dit eta ea zuk ere, Andre Domini, zirikatzen dituzun len baitlen egin dezaidaten.

DOMINI ANDREA: Alabek amari kaso egiten diotela uste al-dezu? Ez lan geiegi artzeko esan diet ezin amaiturik ibiltzeko.

ERROXALI: Nerea beintzat antolatuko al-didate.

SOR PAULE: Noiz itzultzen zera Madrid-aldera?

ERROXALI: Nere etxeoandre Markesaren eguna igaro arte ez. Illaren azken-aldera edo. Eta zu?

SOR PAULE: Ni ordurako an izango naiz Jainkoak lagun. Ikaskizunak asten bait-dira.

DOMINI ANDREA: Ikaskizunak asiko dira, bañan zure «bixitak» emen ez dituzu amaituko. Ori, etorri ziñanetik etxez-etxe zabilzala.

SOR PAULE: Arritzekoa al-da? Kontu egizu amar urte dirala errira etorri ez naizela Toki ta lagun zarrak ikustea atsegin zait. Kampoan, erbestean bizi ez zeratenok ez dakizute zer dan?

ERROXALI: Udarako ez da txoko txarra.

DOMINI ANDREA: Emen gaude bada bizi guzian ea iñora atera gabe.

SOR PAULE: Zorionsua sorterrian jaio, bizi ta iltzen dana!

ERROXALI: Txokotik ateratzea ere ez da txarra, zerbait ikasi ta irabazteko.

SOR PAULE: Jainkoaren bideak ez ezagunak zaizkigu. Ni komentura deitu nindun. Zu, berriz, Erroxali, Markes baten etxera. Zerua nun-nai irabazi diteke.

DOMINI ANDREA: Famili bat azi duna eta seme-alabai kristauki ta lane-giñez bizitzen erakusten ari dana ere, zuek aña izango al da!

SOR PAULE: Gu, agian, estuago neurtuko gaitu Jainkoak.

ERROXALI: Josten ederki erakutsi diezu alabai ta saritua izango zera: billuzi dagona janzteak errukizko egintza bait-da. (*Parra dagite*).

SOR PAULE: Bai, jantzi-ordez askotan bear ez dana agirian utziko ez balukete. Au likiskeria ageri da itsas-bazter oietan! Ez da Aprika larru-gorrietan ain nabarmen.

DOMINI ANDREA: Olakoetan begiak itxi! Komentuan bezela ibiltzea nai al-dezu ondartzta ta olakoetan?

SOR PAULE: Ori ez! Baño txukun bai ordea. Kristauak al-gera, ala ez.

ERROXALI: Bi aizpek ba-dezute beti eztabaida. Luzaroan egongo nintzake zuei entzuten, joan bear ez banu. Domini, esan zaiozu alabari ez nere soñekoa aztutzeko. Lutzik dituan eskuiekin Madriden modista jarriko balitz nai aña diru irabaziko luke.



DOMINI ANDREA: Ori esan bear diozu! Oraintxe ez du asko palta erritik aldegitoko. Gañezka dago.

ERROXALI: A zer nolako poza nerea! Madridera elkarrekin joango bagña. Gure etxekoandreak modisteri on batean sartuko luke. Izeba Sor Paulek ere ezagutzen du ongi zer dan Madrid.

SOR PAULE: Bai, bai, geiegi ere. Ikasteko leku ederra da gazteentzako, nun dabiltzan zaindu ezker. Gure kolejioan toki egingo genioke.

DOMINI ANDREA: Ikusten ari naiz guzien artean burua berotuko diozute, ta laister naizela alabarik gabe.

SOR PAULE: Jainkoak alabak eman dizkitzu, Aren borondatea bete dezaten, eta etxetik joaten bazaizkitzu ere, ez dituzu jo bear galdutzat.

ERROXALI: Moja ta praileak guzirako ba-dute arrazoi. Andre Domini, ez estutu. Urrengo batez itzegingo degu orretzaz. Soñekoa progatzera etorri nadinean. Ba-dakizu e? Laister arte.

DOMINI ANDREA: Bai emakume bai! Zoaz ondotxo.

SOR PAULE: Zoaz Jainkoarekin.

ERROXALI: Ariyo ba! (*bijo*) Biar etorriko naiz. Ez dezala aztu nere jantzi dotorea.

IX. AGERRALDIA

A. DOMINI ETA SOR PAULE

DOMINI ANDREA: Alde egin digunean, ez naiz asarre. Kanela-kolorezko soñeko orrekin zoratu-araziko gaitu etxeko guziak.

SOR PAULE: Orrelako bearrezko al-zaio?... Erroxali ere urtetan aurrera doa, eta onuzkero ez zaigu asiko senargai-billa.

DOMINI ANDREA: Mutxurdirin oiekin ez pio! Txoralda zamarra izan da beti.

SOR PAULE: Ez zazula orrela itzezin lagun urkoarengatik. Erroxali, ona da; Guziok ditugu geren utsegiteak. Madridera etxe aundi-ki batean dago ama de llaves. Eta etxekoandre *Markesak* ez daukala saltzeko ba-dakit.

DOMINI ANDREA: Orretzek arrotu du, bada, pizka bat gure Erroxali. Aristokrazikoa dala iruditzen bait-zaio. Sedazko soñeko ori...

SOR PAULE: Kanela-kolorea... guziok ba-dakizu.

DOMINI ANDREA: Ori bera! markesak emana du eta guk Erroxaliren neurrirra jarri bear. Beste lanik ez balego.

SOR PAULE: Itxoiz dezala. Eta bestela ez artu. Ori baño korapillo aundiagorik ez badezute.

DOMINI ANDREA: Egia diozu, aizpa! Ori baño korapillo gaitzagoa bade-gu. Lutxi ezertako gogo barik arkitzen dedala. Badakizu zergatik dan...

SOR PAULE: Bai, antzematen diot... Maite-miña, nobio... keria.

DOMINI ANDREA: Orrela jarraitzen badu, aldi baterako etxetik kanpora bidaltzera beartuko naiz. Giroz aldatzea!

SOR PAULE: Ez zait gaizki iruditzen. Ezta Madridera bidaltzen badezu ere. Erroxalik dion bezela, moda-etxe on batean josten ederki ikasiko luke. Zer gerta ere, an nago ni gañetik begiratzeko. Gure komentuan ere leku izango luke.

DOMINI ANDREA: Ori, berari galdegin bearko diozu. Biei deitzera noa. Ez bait-dakite emen geranik. (*otsegiñaz*) Lutxi!! Filo! Atozte! emen gera! (*Barrendik*) Ba-goaz amatxo!

SOR PAULE: Bururik altxa gabe lanean ari dira.

X. AGERRALDIA

LENGOAK LUTXI ETA FILO

LUTXI: (*sarturik*) Zer gertatzen da?

FILO: Aguro itzuli dira!

SOR PAULE: Ez bait-degu etxean arkitu nai genduen «persona», eta urren-go batean ikustaldia egingo diot.

DOMINI ANDREA: Bakarrik ioango zera. Beti kalean ibiltzeko prest. Ez dakit nola etsitzen dezun komentuan.

SOR PAULE: Orregatik bada! Urte guzian komentuan nagolako, ateratzen naizenean oporraldietan kalea maite det. Geiago, gaur txokolate ona artzeko aitzekia bait-nuen. Zer dan ea aztu zaidana.

LUTXI: Txokolata etxean ere emango diozu izeba. On-ona Bayonakoa gañera. Gu ere lana uzteko irrikitzen gaude, eta guziok artuko degu elkarrekin.



SOR PAULE: Ederki! ederki! Lutxi! (*bazter batera eramanez isil-kontuan diardutelarik*).

DOMINI ANDREA: Bueno, Filo. Zure aizpa lan egitez aspertu zaigu, ta gu biok gertu bearko degu txokolate ta gañerakoa.

FILO: Bai, ama, bai! (*Izeba ta aizparengatik*) utzi zaiezu pakean

DOMINI ANDREA: Txokolate ona beeko apalean gorderik daukat.

FILO: Ba-dakit bai. Neronek iñoiz gordiñik ogiarekin iaten bait-det.

DOMINI ANDREA: Orduan, ez dakit batere geldituko danik!

FILO: Bai andre, bai! Gaurko aña bai.

DOMINI ANDREA: Au neska! Ar itzazu lau ontzako, ta bero zazu esnea, alcoholezko sutokia berotuaz.

FILO: Sua pizturik daukagu, plantxarentzako.

DOMINI ANDREA: Zuretzat ez da eragozpenik. Zer ote-da maratz izatea. Egizu, egin, derizkiotzun eran.

FILO: Bai, amatxo. (*Izeba ta aizparen-gatik*). Oiei ezer esan gabe!

DOMINI ANDREA: Obe dezu, bai. Isil-konturen batzuek bait dituzte.

FILO: Nik ere, ba, isil-konbidau bat ekarriko det. Xatur or barruan dagona!

DOMINI ANDREA: Barruan dagona diozu, eta bakarrik utzi al dezute? Sartu dedilla

FILO: Bai, nik txokolatea egin bitartean emen egon dedilla. (*Atetik*) Xatur! Emen, nere amak eta, agurtu egin nai zaitue. Zatoz ona piska batean.

DOMINI ANDREA: Jakirña! Or utziko zenuten, bada, neska gajoa? Ez det aspaldi ikusi.

FILO: (*sarturik*) Txokolate dotorea artu bear degu gaur. Baionakoa!

XI. AGERRALDIA

SOR PAULE, A. DOMINI, LUTXI TA XATUR (*au sarturik*).

XATUR: Arratsalde on! (*Sor Paule eta A. Domini agurtuaz*) Zer modu?

DOMINI ANDREA: Ez gazteak bezin ongi, baiñan tira «ainbestean!».

SOR PAULE: Oso ondo, Jainkoari eskerrak.

XATUR: A. Dominik beintzat ez du urterik galtzen. (*Sor Paule*) Beorri ez det ainbeste ezagutzen, naiz orain biok Madriden bizi geran.

SOR PAULE: Nor zaitugun ba-dakit. Nork ez du aditu Xaturetzaz mintzatzeten?... Raketista...

LUTXI: Nere lagun on bat da, Sor Paule. Eta neskatxa zintzoa, naizta pilotaria izan.

SOR PAULE: Nik ala uste. Ez det txarrez esan.

DOMINI ANDREA: Au gazterik atera zan etxetik. Ez al-da ala, Xatur? Oraingo gazteen ezin-egona.

XATUR: Oraingoena eta antziñakoena. Ni izebak eraman nindun... zera... «Ostatu zaarrekoak»...

DOMINI ANDREA: Ah! bai! Iñaxi! ezagutu nuen.

SOR PAULE: Ikusten dezu, aizpa, ez gerala oraingoak bakarrik. Antziñakoak ere etxetik ateratzen ziran.

LUTXI: Gure amak nai luke, ez beñere bere ingurutik mugitzea.

SOR PAULE: Ama on guzien leloa da ori, baiñan bizitza indartsuagoa da, ta guziok sakabanatzen gaitu. Ez dio ajolik;

XATUR: Asieran pelotari bezela ibilli nintzan, baiñan bilduko gera berriz beste munduan.

DOMINI ANDREA: Bai Josafateko zelaian. Ori ba-dakigu. Orain, ordea, oraingoa jakin nai genduke. Ea Xatur! esaiguzu zertan zauden Madriden...

XATUR: Asieran pelotari bezela ibili nintzan, baiñan orain arropa-almazen aundi batean nago. Nere izeba neskame izan zan etxean. Oso estimatua naukate eta ederki ordaintzen didate.

DOMINI ANDREA: Txanpon batzuek aurreratzen ariko zera orduan? ezkontzen zeraneko?

XATUR: Ez banu gastatzen, bai. Erri aundietan, ordea, diru-txaubide aundiagoak daude oraindik.

SOR PAULE: Obe dezu pelotaritza utzi dezuna. Jokalari izatea, ez da ondo neskatxa egoki batentzat.

LUTXI: Okerrago da «futbolista» izatea.

XATUR: Bai, baiñan diru geiago irabazten da. Naiago nuke ala banintz.

DOMINI ANDREA: Oraingo oitura ta libertadeak! Bestela ezi giñuzten gure gurasoak. Ezkondu arte ez nintzan ea etxetik atera.

SOR PAULE: Oraingo gaztedia beste era batera bizi da, ta ezin zaizkio bideak itxi. (*Xatur*) Zer kaletan bizi zera Madriden.



XATUR: Nere izeba bizi izan zan etxean, Fuencarral-kalean; azken bizi-tzan bi gela aundi ditut zerura begira..

SOR PAULE: Orduan lekua izango zenuke Lutxirentzat ere...

XATUR: Ez det izango bada? Pozik artuko nuke gañera nerekin! Gaur bertan jardun degu orretzaz. Ez al-da ala, Lutxi?

LUTXI: Bai, ala da. Ta Xatur ez ezik Erroxali ere beti ari zait Madridera joateko. Moda-etxe apain batean sartuko naula...

DOMINI ANDREA: Guziok elkar artuta nere aurka ari zeratela dirudi. Zer da au? Monja ere bai, alajaña! Etxean bakar-bakarrik nai al-nazute?

SOR PAULE: Ez da ori. Lutxiri, uste det, orain komeni zaiola etxetik ateratzea. Ama batek seme-alaben etorkizuna dalata ez du beldurrik izan bear etxetik kampa atera ditezen, kristau-ikasbidea ta erriljio katolikoaren egiak ondo erakutsi badizkiete. Jainkoak ez ditu eskutik utziko.

DOMINI ANDREA: Aski degu, aizpa. Gaur sermoi geitxo entzun dizkitzut. Ea seme ondatzaillearen ordez, alaba ondatzaillearena gertatzen zaigun. Madridera joan nai badu ez diot galeraziko. Bere buruaren jabe da, ta dijoala! (*malkoa dariola bazterten da*).

SOR PAULE: Ez du orrelako presarik. Ez da laisterka ibilli bearrik. Emengo lanak bukatu ditzala, ta bitartean gauzak antolatuko dira. Guk Madriden jostun-etxe on bat billatuko diogu. Gure ikastetxean egon nai ez badu, Xaturek bere etxean artuko du...

XATUR: Aguro gañera. Ori egiña dago. Au poza nerea! (*Lutxi besarkatuaz*).

LUTXI: Ez ain aguro, Xatur!

XATUR: Isilik ago, neska!

LUTXI: Zer nai den? Ama itun ikusten diñat, eta ez niken geiago naigabetu nai. (*Besarkatzera joanez*).

Ama!

DOMINI ANDREA: Xaturekin joateko baimena ematen dizut.

XATUR: Bai zera? Ez da egia izango.

SOR PAULE: Ez dezute goibeltzeko ziorik. Alaitu zaitetze, alaitu.

FILO: (*Barrengo atean agertuaz*) Txokolatea gertu daukazutela, andre eta andereñoak! Maia iarria dago. Aurrera beraz!

XATUR: Garaiz zatoz, Filo. Emen barrera tristetzen asia zuten batzuek... eta guziok ere «plakiarekin» gaude.

LUTXI: Ez da orrenbestean; bañan gogoz artuko degu. Ez al-da ala, ama?

DOMINI ANDREA: Barruan geldituko zait arra.

FILO: Guzia gertu daukat. Bizkotxoak gañera... Atozte! Sar bedi izeba!

SOR PAULE: Ezin barau egingo degu, orrelako borondate onez eskeñita. Goazen!

FILO: Esne-gaia ta dultze pizka bat ere atera dizuet. Atsegin zaizuela bai bait-dakit.

XATUR: Ura «eskonfarekin» ez unan aztuko, Filo. Egarririk natxionan pelota-partidu ondoren bezela.

FILO: Ezta! Ortatik beti zegon gure etxean.

LUTXI: Nik uste, Xaturek naiago diñala xerra bat urdaizpiko sagardoarekin.

XATUR: Zer uste den, ez naizena «señorita piña». Tea artzen ere baze-kiñat.

FILO: Ortatik ere ba-zeukanagu...

DOMINI ANDREA: Edozeñiek esango luke, loteria erori ala ezteiak dituguna, onela parra-parra ibiitzeko.

SOR PAULE: Jai egiteko noiz-nai da garaia.

LUTXI: Dagonean on, eta ez dagonean egon! Gaurkoa nere bizkar da. Lan egitez aspertu naiz, eta gere buruai opa bear diegu gozamen pizka bat. Izeba ere ez da egunero gurekin izaten.

SOR PAULE: Eskerrikasko!

FILO: Oztu bañan len sar zaitetze! (*Lutxi eta Xatur besotik elduaz*).

XATUR: «Helatu» batzuen billa joango naiz.

DOMINI ANDREA: Ori geiegi izango da. Au neska oiek! Zer ote da gazte izatea?

LUTXI: Beste egunen batez konbidatuko gaitun.

FILO: Bai, gaur gure etxeko «atsolorreta» da. (*joanez*).

SOR PAULE: Izena jakitea ere ez da gutxi. A zer nolako bi alaba dituzun! ta zer bi illoba nik!

DOMINI ANDREA: Ez dira monja-gai, ez uste!

XII. AGERRALDIA

LENGOAK ETA FILO

Oiala



BIGARREN EKITALDIA

I. AGERRALDIA

(Ganbara aundi bat bi atekin: lo-gelara ta eskallerara doazenak).

LUTXI TA ERROXALI

(Lutxi ondo-ezik besaulki batean eserita).

ERROXALI: (Pakete bat eskuan duala) Kanela kolorezko soñeko au berriz antolatu bear didazu, Lutxi.

LUTXI: (Gogorik gabe) Orain ere bai, Erroxali?

ERROXALI: Gauza gutxi. (Oso parregarri lenengo ekitaldian bezela). Gerria pizka bat jetxi; gona luzatu ta atzealdetik estutu... aurrealdea bildu... paparrean jaso ta besomaukak... aldatu, ez japones erara baizik... oraingo moda berrira... «punto ruso» delakoarekin.

LUTXI: Ez nazu lanerako gauza, Erroxali.

ERROXALI: (ondo-ezik dagola oartuaz) Zer gertatzen zaizu bada, Lutxi? Gai-
zoa! Ez nekien ezer.

LUTXI: Grippe txar bat pasa dedala ta pattal utzi nau... Kemenik gabe gelditu natzaizu.

ERROXALI: Ondo jarriko zeranean, asiko zera lanean.

LUTXI: Ez dakit noiz! Madrilgo giroak ez nau ongi artu. Etorri nintzan ezkerro, beti zerbait ba det...

ERROXALI: (Susperitu naiez) Ori ez dezu ezer: errimiña... Amatxo, aizpa... ta «txokotik urruti bizi bearra. Edo... (gaiztoz) amorioa...

LUTXI: Bai zera! Txoria baño alaiago etorri nintzan-eta. Ta moda-etxean ikasteko irrikitzen nengon... ta barrengo trixturak gogo guzia galdu dit.

ERROXALI: Tira! Tira, neska! Laister sendatuko zera. Udaberria Madrident berebizikoa dezu. Zerbait lagundu al banezaizuke, aski dezu esatea. Egunero ordu batzuek nere gain izaten ditut eta nun nagon ba-dakizu.

LUTXI: Asko eta asko ixtimatzen dizut. Millesker zure eskeintzarengatik. Xatur emen dagola biok ondo moldatzen gaituzu.

ERROXALI: Ai Xatur! Xatur! Bera ez bazaigu gaisotzen? Neskata ona da, baiñan beldur pizka bat ematen dit. Madrident txokoak ondo dakizki, eta ederki ez-ba du ba aizatzen bere burua...

LUTXI: Berandu etortzen da, ori bai, jai eta igandetan. Ain da alai!

ERROXALI: Gaur aste gorrian gaude, eta alaz eta guziaz ez zaizu oraindik etxera agertu. Garaia zun bada! Zer afaldu bear dezu?

LUTXI: Kafe-esnea, «bollo» batekin artzen det. Aski zait...

ERROXALI: Orrela ez dezu indarrrik egingo. Emengo esnea ez bai dezu Galarretakoa. Ez zerala berealakoan lanean asiko. Zer diote jostundegian? Maixtra ez al zaizu etorri bixitara?

LUTXI: Ezta nai ere! Eman didan «tratua» ez da gain-gaiñekoa. Asko agindu, ori bai! Au eta ura ordainduko zizkidala, eta sartu nintzan egunean bezela nago.

ERROXALI: Ez ditekena da. Zuk dituzun eskuakin! primoreak!

LUTXI: Bostna beatzekoak, besteak bezelaxe. Eraztunak kendu bear lane-rako.

ERROXALI: Ez da berdin ez. Lantegian aurreratuenetako zerana egingo nuke.

LUTXI: Ez dakit batere. Bai, ordea, ez naizela «madama» orren etxera geigo itzuliko.

ERROXALI: Aski-ikasi dezu bai zure kontu jartzeko. Madrident ere. Ta lenengo «parrokiana», neroni.

LUTXI: Bai, Erroxali! Eta pozik alare josiko nizuke soñeko berri bat. Obe zenuke antolatzea baño udarako «kanela» kolore ura?...

ERROXALI: «Pampoxa» ez ba-zitzaidan gelditu bada... Arri ta belarri utzi nituen guziak! Pentsa, jai artan «kballero» batek esan zidan «Vaya canela»!

LUTXI: Ja, ja, ja!! (algaraz). Au Erroxali! Nere ondoezean parregin-arazten didazu-ta! ja, ja, ja!! Ez nago bada irri askotarako...

ERROXALI: Gaztea zera eta berriz ere, osasunaz batera, itzuliko dira zuretzat egun pozgarriak.

LUTXI: Uste al dezu? Orratx! Etxetik atera nintzala bost urte badirala dirudit.

ERROXALI: Ori buruz argal izateak egiten dizu. Neri, berriz, Madrident atzo etorri nintzala gogoak ematen dit. Atzo! eta ogeita-bost urte aundi joan dira geroztik. Zartzen noa. Auxen da miña! Ai!!...

LUTXI: Ene! ai! (asperen-intziri luze bat egñiez).

ERROXALI: Zure miña edo nerea? Zer gertatzen zaizu?



- LUTXI:** Ez nago ondo. Txorabioak arturik nauka... (*begiak itxiaz*).
- ERROXALI:** *(Lutxi eserita dagon alkira joanez eta eskua bekokia ipiniirik)*. Ez dezu bada sukarrrik. Oztu egingo ziñan. Ez da batere berorik emen. Manta au botako dizut gañeti (*berogarrían ondo bildu beza*). Sua ere piztuko dizut, eta zerbait bero artu bear dezu.
- LUTXI:** Itxoingo det Xatur etorri arte.
- ERROXALI:** Xatur?... Aditu bear dizkit bereak eta asto beltzarenak! Jakin nola zauden ta ez etorri bear zuzenean etxera. Ori da gibela! Biotza bear da aundi ta ez gibela!!!
- LUTXI:** Zazpirak jo dute, eta laister izango da emen.
- ERROXALI:** Nik ere ba-ditut egin bearrak, bainan ezin utziko zaitut bakar bakarrik. Xatur etorri deño geldiko naiz. Ori neska txoral-da! Senargaia al du edo zer?
- LUTXI:** Laguntzailleak, bai. Ortik aurrera ez det uste.
- ERROXALI:** Zinera berdin joana izango degu.
- LUTXI:** Aste-egunez ez da beñere joaten.
- ERROXALI:** Madriden kontuz ibilli bearra dago mutillekin. Itsaskorrago dituzu, euli-mandoak baño. «Ortera» deitzen dituzte.
- LUTXI:** Emengoak «ortera», ta gure errikoak «trikuak».
- ERROXALI:** Norbait da ate ortan. Ikustera noa.
- LUTXI:** Garai ontan Xatur, txintxo asko.

II. AGERRALDIA

LENGOAK ETA XATUR

- XATUR:** (*Sartuaz albatan*). Garai nun; ez da ala?... Arratsalde on! Erroxali zurekin dagonean, gaitz erdi. Berandutu egin zait.
- LUTXI:** Ai, Xatur, Xatur! Aztu aiz nitzaz...
- XATUR:** Aztu ez, Lutxi; baiñan kale ortan beti sortzen dituen ez etxeratze-ko aitzekik. Ezagun batzuekin arkitu naun (*utzi bitza eskuan daramazkin puskak*). Erroxali emen degu-ta...
- ERROXALI:** Luzeiritzirik nago joateko, ez uste. Bañan Lutxi ez dago obeto...
- XATUR:** (*Lutxirengana joanez eta maite-zimikoak egirik*) Zer gertatzen zaio gure kutunari? Gaizo maitea!

- LUTXI:** Kopla gutxi orain, Xatur...
- ERROXALI:** Otzez dar-dar zegon aestian... ta gose gañera...
- XATUR:** Sua beriala piztuko det; eta bai aguro esnea berotu ere.
- LUTXI:** Ez det jateko gogorik. Kalera ateratzekoa bai.
- XATUR:** Nai baden eta nai ez baden, esne-katillukada bat sartuko diñat zintzurretik bera. Arraultz ta guzi, ala bearrez... (*sukalderuntz doalarik*).
- LUTXI:** Nazkatzeko aña esne artu diñat aspaldi.
- ERROXALI:** Ez badezu jatena «pulamentuz» artzen, aultzen joango zera, ta zureak egin du!
- LUTXI:** Artuko det, bañan batere gogorik gabe. Naiago ditut Xaturen konduak entzun. (*Xatur*) Ez digun oraindik esan nundik nora ibilli aizen.
- XATUR:** (*sukaldetik itzuliaz*) Jakingurak ez din beste gaitza sendatuko. Nere berriak bizigarri zaizkin eta esango dizkiñat.
- ERROXALI:** Janetik bakarrik ez gera bizi.
- LUTXI:** Utzi zaiozu itzegiten.
- XATUR:** Bada, lanetik atera naizenean, Patxi Arregi ta beste euskaldun mutil batzuekin topo egin det...
- ERROXALI:** Zerbait aterazi diogu.
- XATUR:** Zaude... Ixkira eta karramarro batzuek jatera konbiatu naute... garagardoaz.
- LUTXI:** Ori da mauka! Esnea baño gustorago artuko nizkiken neronek ere!
- ERROXALI:** Ekarriko dizkitzugu, kutizi ori badezu.
- XATUR:** Esan, bai. Begi luze izai. Ondo zegonean, ez zituan nai izaten ta. Ez didazute bukatu utzi... gero Patxi eta lagunek zuretzako eskumunak eman dizkidate...

(*Lutxik une ontan begiak itxi ta burua makurtzen zaio*).

- ERROXALI:** Ez dira zutzaz aztutzen... Lutxi!
- XATUR:** Baiñan... (*begiratu eta eskutik eltzen diolarik*). Baiñan, Lutxi, nere pitxi, nun den min?
- LUTXI:** (*begiak zerbait idikiaz*) Ez den ezer. Buruko txorabioa.
- ERROXALI:** Nik esan dedana: auldadea. Otzikaraz dago. Onek jan egin bear du. Ollo salda obe.
- XATUR:** Bai ta zera ere! Esnea emango diot. Onuzkero berotua da. (*Sukaldera joan eta baso-esnea ekarriaz*). Tira, neska; ar zan!



LUTXI: Ezin diñat. Gorakoa egingo zidan. (*Berriz burua albora makurtu ta begjak itxiatz*).

XATUR: Baiñan, Lutxi! (*Basoa mai-gañean utzi, ta eskutik eldurik*).

ERROXALI: (*Oso larritzen asirik*) Onela ezin utzi genezaioke. Medikuari deitu bearko zaio. Otzikarak ditu, eta beldur ematen dit.

XATUR: Medikuari bañan lenago izeba monjari deitzea obe. Ark jakingo du zer egin. Zer derizkion, Lutxi? Sor Pauleri deitzea nai al den?

LUTXI: (*Begjak itxirik*) Baita zera ere. Apaizari ere bai. No!...

ERROXALI: (*Ikaraturik*) Ni baezpada Sor Pauleren billa noa. (*Xatur*). Zu geldi zaite emen Lutxiren ondoan.

XATUR: Nun bizi dan ba-dakizu; ez ta ala?

ERROXALI: Besterik ez! Gure etxetik bertan. Telefonoz ere deituko nioke, bañan obe det «metroa» artu ta komentura bertara joatea. Itzez itz adieraziko diot guzia. Beriala etorriko gera. Berak ikusiko du medikua deitu ala ez.

XATUR: Ederki. (*Lutxiri begiratuaz*). Loak artu duala dirudi. Gaur ez da piztutzen, ez nere kontuekin ere!

ERROXALI: (*Lutxi-ri*) Gero arte Lutxi! Izeba monjaren billa noa.

LUTXI: (*Begjak itxita ta aoa itxirik ots zerbait egñiaz*) Muu!

XATUR: Muu!... dio. Lenago ere askotan izana da emen izeba... Astindu-ko gaitu guziok. Orrela ere ezin utziko degu. Norbait etorri dedilla, naiz medikua naiz monja...

ERROXALI: Bear bada Obeto zaitzeko komentura eraman naiko du.

XATUR: Torizu; sendagai ona ori!

ERROXALI: Senargai on bat obe litzake, bañan...

XATUR: Zoaz, zoaz! lenbaitlen...

ERROXALI: Alaxe da! Noan, bada (*bijoa*).

III. AGERRALDIA

XATUR ETA LUTXI

XATUR: (*Lutxiri belarrira*) Biok bakarrik gatxeuden. Esna adi! Goiz bait-den lo egiteko. Afaldu gabe ago. Izkira batzuek ekarri dizkiñat! Olakoak! Zeñekin ibilli naunan ere kontako diñat.

Erroxali ez zegonan ezkerro, adieraziko diñat egi guzia (*Bekoki ta okotzetik leunkiro elduaz*). Lutxi

LUTXI: (*Begjak zabaldu eta burua jasoaz*) Pasatzen ari zaidan. Obeto natxion.

XATUR: (*Gartsu*) «Siquiera»... piztu aizenean! Biotza bere lekutik ateraziko didan ire otzikarekin... Erroxalik arrazoi din. Auldu ta argaldu aiz, ta goseak txorabioa egiten din. Beraz, nai ta nai ez esnea artu bear den oraintxe.

LUTXI: I isiltzeagatik artuko diñat txantxilla bat!...

XATUR: Ez, ez, baso osoa! (*Ezpañetara eramanez*). Ea bada... gaiñak ez zaizkin tratatuko. Ez den beldurrik

LUTXI: (*Ezpañak itxiak*) Aski, aski! Ea guzia edan diñat.

XATUR: Beste pizka bat (*guzia edanaraziaz*). Ura den erdia baño geiago-ta. Barruan den. On egingo din.

LUTXI: Bai! Orain konta eidan nun ibilli aizan.

XATUR: Ba, Zinean... X... pelikula ikusten. Bigarren aldia joaten natxionala. Oso polita den

LUTXI: Nik ere bazeukanat ikusteko gogoa.

XATUR: Senda adi, ta joango aiz! Oraindik luzaroan irauten al din programan. Jaten asten baaiz eta beste buru-austeak aztutzen, zinera ezik dantzara ere joango gaitun elkarrekin...

LUTXI: Nere izebak jakin gabe bearko din.

XATUR: Erroxali billa joan zaiola aditu den. Laister ditun emen.

LUTXI: Ez unan bidali bear. Ona den bera! Au ernegazioa!

XATUR: Ikaratu egin bait-naun. Ainbeste antzi, naigabe ta arnas-estu atera ditun! Ez diñat iñor ikusi iltzen, bañan baezpada medikuarri deitzea erabaki diñagu Erroxalik. eta biok. Eta lenago ire izebari.

LUTXI: Ez unan orrenbesteraño. Eta ez orrelakorik aitatu izebari, bestela komentura eraman naiko natxion.

XATUR: Sendatzen ba aiz! or konpon! Ni ez natxion eramango. Neska mutilzaletzat jotzen bait-nau...

LUTXI: Izan ere, lantegira joan ez naizela ogei egun badala jakin dezanean. Ez, ez! aste bete esan bearko zionat.

XATUR: Ori antolako diñagu, Erroxalik ez ba din mingaiña geiegi erabili.

LUTXI: Okerrena, ez daukadala batere gogorik lantegira berriz joateko. Andre Maixtra orrekin aspertuta natxion. Ikasi bear nuana, ikasi ninan noski. Sendatzean, naigo diñat errira edo Donostira itzuli ta berriz nere kontura lanean asi.



XATUR: Neska! Ori den errimiña! Aguro aspertu aiz emen. Orrek esan nai din ire biotzak sustraiak an utzi dizkiñala.

LUTXI: I ere ez aiz, bada, ijito-kasta, alajañetan!

XATUR: Indarrak etortzen ari zaizkin orratiokan! Bejoandinala! Zer ote, esne bataiatuaren ordeaz «txuletak» jaten asten aizanean?

LUTXI: Ez den orrengatik. Izeba monja ta medikua datozenean, susper-
tzea gertatzen zaidan.

XATUR: Orduan ez den gaitz aundirik. Nola nai, obe den izebak maskal-
du ta erori zamarra arki aunan. Galdera gutxiago egingo
dizkin eta pakean utziko gaitxon.

IV. AGERRALDIA

LENGOAK, ERROXALI TA SOR PAULE

ERROXALI: Emen gaituzu! Arratsalde on!

SOR PAULE: Ave Maria! Zer gertatzen da? Nola ez didazute lenago gazti-
gatu?

LUTXI: Ez da ezer, izeba.

SOR PAULE: Baiñan... (*Lutxirengana urbilduaz*).

XATUR: «Grippe» pizka bat. Utsa! Egun batzuetan etxean egon-ondoren,
biar ateratzera zijoan. Gaur txorabioak eman dio.

SOR PAULE: A gazteok, gazteok! Ez dakizute zeren buruak zaintzen.
(*Lutxiri eskumuturra artuaz*). Biotza ondo al dabilkizu...

XATUR: (*Belarrira Erroxaliri*) Orretzek, uste det, bada, utsegiten diola.

SOR PAULE: (*Bekokian eskua ipiñirik*) Sukarra dezula dirudi. Ea mingain
ori. (*Lutxiri, mingaiña atera arazi*az). Zikiña daukazu.

XATUR: Amaika mingain zikin ba-dabil munduan (*Erroxaliri*).

ERROXALI: Ez zenuen neregatik esango? e?...

XATUR: Ez, enetxoa! Bañan ez zazula geiegi itzegin, Monjak zerbait gal-
degingo dizunean...

SOR PAULE: (*Beti Lutxiri*) Erroxalik esan dit, ogei egun daramazkizula
lanera joan gabe... Nun dezu min?...

LUTXI: Miña... miña... gauza aundirik ez, banan txaldankeria gorputz
guzian. Eta jateko gogo gutxi.

XATUR: Ez da txoriak aña!

SOR PAULE: Nik uste, oiean sartu bear zenukela.

ERROXALI: Orixe bera esaten nion. Etzan, eta egon bertan goxo. Ezta
orrelako erremediorik.

LUTXI: Asper-asper egiña nago oean egotez. Eta ez nago batere obeto..

ERROXALI: Bueno! etxeok: berandutuko zait eta uzten zaituet. Ea
(*Lutxiri*) lenbaitlen titare ta jostorratza eskuan dituzula
ikusten zaitudan.

LUTXI: Eskerrik asko, Erroxali. Lenengo puntadak zuretzako izango dira.

SOR PAULE: Aurren-aurrena senda zaitte, eta ea indartzen zeran. Arpegi
txarra arkitzen dizut.

ERROXALI: Ainbat egunetan aizerik artu gabe.

XATUR: Ez da orrenbestetaraño! Zer du bada...

SOR PAULE: Neretzako «infekzio» zital bat, grippek utzi diona... Begira,
Xatur, botikara zoaz, eta penizilina ekarri zazu. On aundia
egingo dio. Neronek jarriko diot txertua. Ez degu mediku
bearrik

XATUR: Bai, bai! ederkil! Beriala joango naiz.

LUTXI: Nere iztarrak ziztada bat geiago artuko du.

SOR PAULE: Ori ez da ezer! Zerua irabazteko zerbait geiago jasan bearko
dezu.

ERROXALI: Nik lagunduko det Xatur botikara; eta gero etxerantz jarrai-
tuko det. Onuzkero etxeokoa zai daukat.

XATUR: Goazen, bada... eta (*Lutxiri*) geldi-geldi, izebari obeitzen.

LUTXI: Errez den esatea! I, berriz, kalean ibiltzeagatik loteri-saltzale ere
egingo intzake. Laister itzuli, e?

XATUR: Txanda elduko zain iri ere! (*Abituaz*). Gero arte bada.

ERROXALI: Ea ondo lo egiten dezun. Urren arte. (*Bijoaz*).

LUTXI: Agur, eta eskerrikasko!

SOR PAULE: Nerekin geldituko da, Xatur etorri arte.

V. AGERRALDIA

SOR PAULE ETA LUTXI

SOR PAULE: Lenago deitu bear zenidan. Lanpetua egonagatik, etorriko
nintzaizun ikustera. Zertarako gaude, bada?

LUTXI: Utsa izan da, izeba. Gaur naigabeak eman-da, txorabioak era-bat
artu naula.



SOR PAULE: Ez da symptoma ona. Argal zauden ezaugarri dezu. Gaitza penizilinak kenduko dizu, ta gero indartzen asi bear.

LUTXI: Luzeiritzirik nago...

SOR PAULE: Etxeko berririk ba-al dezu?

LUTXI: Ea astero, amak ez bada Filok karta egiten didate.

SOR PAULE: Ni nagia naiz iñori karta egiteko. Ondo izango dira, noski, etxeko guziak?

LUTXI: Ala diote. Ama beñere baño bizkorrago, eta aizpatxoa berriz, ez dago esan bearrik osasunez gañezka.

SOR PAULE: Zu gaxorik... tira! makal zamar zabiltzala ba-al dakite?

LUTXI: Ez bada. Bueno!... grippe arin bat pasa dedala aitatu diet. Orain susmoa arturik nago, geroztik Erroxalik bere etxekoai nitzazu zerbait adierazi ez ote dien: eta beldur naiz onuzkerro berri ori aundituta gañera zabalduko zutela gurean ere.

SOR PAULE: Orregatik gauza txarrik uste ez dezaten obe dezu zeorrek garbi esatea. Nik ere itz bi egin bearko dizkiot zure amari.

LUTXI: Txaldana nago zernaitarako.

SOR PAULE: Eta txaldankeri orrek gorputza ez ezik anima ere kutsutuko zizun. Egutero egiten al dituzu zure otoitzak?...

LUTXI: Egutero ez bada geienetan bai izeba!

SOR PAULE: Jainkoak iñoiz naigabe oriek bidaltzen dizkigu. Nork daki ez ote zaitun eraman nai beste bide batetik. Maiz konfesatuz zure aitor-entzuleari galdegin bear zenioke. Animaren sendagillea hura baita.

LUTXI: Ez dut asmorik! Orain medikuarai deitzea aski. Ezta ori ere! zuk sartuko didazun penizilina eta zure sermoiak naikoa ditut.

SOR PAULE: Gauza guzien gaiñetik egin zagun Jainkoa ren borondatea.

LUTXI: Paskotan eta udaberrin gaude eta Jainkoari eskatzen diot San Antonioren bitartez senda nazala. Batetik bestera ibilli, eguzki ta aizea artuaz...

SOR PAULE: Oiek egutero merezi gabe zerutik datozkigun doaiak dituzu. Eta eskerronekoak izan bear degu. Urtetan aurrera zoaz Lutxi ta naiz gaztea izan etorkizunari buruz erabakiren bat artzeko sasoiean zaude.

LUTXI: Erabakia? aspaldi artu nuen. Lengo bidetik noa ta Galarretara itzuli nai nuke.

SOR PAULE: Eta Jainkoaren deia bestela balitz?... Bokazioa esate baterako...

LUTXI: Ez det ezer berezi entzuten, nik dakidala beintzat.

SOR PAULE: Ez uste izan zure izenez oiue egingo dizutenik. Dei isilak dituzu, barrengoak, eta ez dezu izan bear entzungor.

LUTXI: Ez ez, belarri ta entzumen piñak ditut. Orain bertan Xatur eskalletatik gora datorrela antzematen diot. Erne nago!

SOR PAULE: Ala izatea poztutzen naiz. Jainkoaren gauzetan ere egon bada erne! Erne Aren deiari!

LUTXI: «Arena» ez dakit bañan «zurea» ondo entzun arazi didazu. Monja sartzea nai zenuke, ez da ala?...

SOR PAULE: Nik ez dut billatzen zure zoriona baizik...

LUTXI: Eskerrikasko izeba; Une ontan nere zoriona «loegitea» litzake (*beñak itxi ta burua makurtuaz*).

SOR PAULE: Ez dizut galeraziko. Inyekzioa jarri-ta pakean utziko zaitut. Ea biarko obeto zauden. Norbait dator.

LUTXI: Kosta zaio etortzea! Xatur degu.

VI. AGERRALDIA

LENGOAK ETA XATUR (*sarturik*)

XATUR: Emen nazute!

SOR PAULE: Aguro egin dezu itzulia.

XATUR: Beriala eman didate penizilina. (*Lutxin*). Kajatxoan zegon orratza ere!

LUTXI: Obe luzatu izan ba unan kalean-buelta.

SOR PAULE: Ez zazula txorakeririk esan! Ez dezu gaitz aundirik alako berriketako gogo dezunean... Ea kajatxo ori. (*Xaturen eskutik artuaz*).

XATUR: Ondo sar bezaio. (*Lutxi zerbait etzan araziaz iztar aldetik sartu balio te keñua egñez*).

LUTXI: Lenago ere toki ori guzia minberaturik daukat. Ai! ene ai!

SOR PAULE: Aoa itxi. Ez da ezer! Oñaze pizka bat ona da sendatzeko. (*Xatur*). Zuri ere emango dizut beste bat.

XATUR: Ez, ez! eskerrikasko! Osasunez ondo nago...

SOR PAULE: Zuk bearko dezuna gorputzarena baño animarentzako zirikaldi bat izango da. Gogo jardunak. Gogor zamarrak gañera! Lutxi senda dedinean biok etorri bear zenukete gure komentura ejerzizioak egitera.



XATUR: Zergatik ez! Lenago Erroxali eraman beza, ea nola artzen dituan.

SOR PAULE: Hura urtetan aurreratuxea doa. Gaztetan premi aundiago izan oi da. Jesukristok ere aukeran mirabe gazteak naigo ditu. Neskazartu ezkerok ez da errez oiturak aldatzen.

LUTXI: Orain beintzat lo egitera joan nai det. (*Alboko gelara besotik daramatela*).

SOR PAULE: Bai gazteak, ez aztu nere aolkuak. Bizia laburra bait da. Ba noa ni ere. Ordu da. Polita izango litzake zuekin nagon bitartean komentuko atearak itxitzea.

XATUR: Oia emango diot eta afaltzen ere bai.

SOR PAULE: Eskerrik asko biotzoneko zera! Agur eta biar arte. Ea erro-sarioa esaten dezuten!

Eszenario-aldaketa

VII. AGERRALDIA

(Aurreko oiala jasota sala ta lo-gela moduko bat agertuko da. Erdian maitxo bat; armario eser-leku eta abar, antzes-tokian).

XATUR ETA LUTXI

(Xatur, marats-marats, gela antolatzen ari da; eta Lutxik ere zerbait lagundu nai dio).

XATUR: (*Lutxin!*) I ago geldirik eserita. Ez al naun bada naikoa guzia txukun jartzeko.

LUTXI: Ondo lo egin diñat eta gogo bizitan natxion iri laguntzeko.

XATUR: Bai, piztu aiz ire etxeok espero ditunalako. Ama ta aizparen aurrean itxuraz azaldu nai den.

LUTXI: Au poza nerea! (*eserleikutik jeiki ta lanean asirik!*) Sendaturik natxion eta laister errira itzuliko naun. Etxekoak urtetan ikusi ez ditudala ikusi; zerizkinan? (*iruditzen zaidan?*)

XATUR: Ez niñan uste ain etxe-zur (*etxe-zulo*) intzananik. Ez den ordea etxekariak eta errizaletasunez bakarrik ire poza gaintzen. Ama ta aizpa maite ditun noski, baiñan zerbait geiago ere ba-den barren ortan. Esaidan egi-egia

LUTXI: Isilik gorde nai niñan oraindik, baiñan galdegin didanan ezkerok ezin ukatuko diñat. Xabierek goraintziak bidali zizkidanan Erroxaliren bitartez. Eta nere berriak jakin nai ditudala zirudin...

XATUR: Antzeman nitxioanan olako zerbait gertatzen zitzaiñala. Amorioa min jarioa... Maitasuna osasuna...

LUTXI: Bertsotan atera zain... ta bi-paretak aidean.

XATUR: Pelotariz gañera batzuetan «bertsolarik» ere bait ba-naun! Amorio zarra dala-ta ez laisterregi ibilli. Ez presa aundirik adierazi aintziñako adiskideari. Iretzaz maite-mindua bazegon berriz ere nabarmenduko den nola edo ala...

LUTXI: Ni, nere tokian natxion. Amak eta Lutxik zer nolako berriak dakarzkiten itxoiten. Erroxalik berriz...

XATUR: Ez badin aria ta matatsa geiago naspillatzen. Eztaziora joana den billa Sor Paulerekin eta diranak eta ez diranak esango zizkiñan onuzkero.

LUTXI: Geitxo maite din jorratzea. Alaz eta guziaz lagun ona den, biotz onekoa eta nere alde egin duan guziagatik zer nai gauza barkatu bear zionagu.

XATUR: Barkatu bai, nai denan aiña! Baiñan i Galarretara itzultzen aize-nean ez diñat nai emen askotan oiña jarri dezan. Ago, ago! Uxatuko diñat. Bai orixe!

LUTXI: Ea isil adi! Atean norbait dabillega zirudin?

XATUR: (*ateruntz joañez*) Bai ala den. Ez ditun eztaziokoak izango bada; amarrak joak ditun bai... (*Atea zabalduaz*). Filo den eta! Ola bakarra!

LUTXI: Filotxo! (*besarkatuaz*). Nola ain aguro? Eta besteak?

VIII. AGERRALDIA

LENGOAK ETA FILO

FILO: (*sarturik eta aizpa ta gero Xatur besarkatu ta musuemanez*) Meeturik arkitzen aunat Lutxi! I ikusteko gogotan nintxonan!! Neguaren luzea! Amarekin bakarrik!

LUTXI: Dan onenarekin geldi intzanan eta ez dion antzeman! A tuntuna! Oso pertxenta. egin aiz.



FILO: I berriz gaixorik egon eta guk ezer jakin ez!
LUTXI: Ez ba unan ezer izan! Utsa! Erroxalik larritu ziñan nere gaitza.
XATUR: Nola etorri aiz bakarra besteak kalean utzita?..
FILO: Taxi ordaintzen geldituak ditun eta zerbait erosten. Neri etxea erakutsi zidaten eta emen etorri nazute tximista egiñean...
XATUR: Ez ni ikutu orduan ez naun «tximistorratza»-ta..
LUTXI: «Aitaren» eginda ez zegon beldurrik. (*Filori*). Zer iruditu zain Madrid?
FILO: Ene! aundia eta ederra.
XATUR: Azaletik bai. Barrundik ez orrenbeste.
FILO: Lenago zerurraño jasotzen zenuten bada. Ez ba zidaten pozik etorri biak.
LUTXI: Pozago itzuliko naun etxera.
XATUR: Ez ni oraindik. Galarreta betiko tokian kokaturik egongo den «Muruaundi» mendia gañean duala. Zer diote «galartarrak»?..
FILO: Betiko bizimañan. Ez da berri aundirik: jende ezagun batzuek ilzaizkigu, Xerapi Etxeberrikoa, Anton Errotari... Beste etxeetan senideak ugaritu zaizkie. Eta ezkontzeko asmoe-tan dabilzanak ere ba-dituzue..
LUTXI: Konta izkiguzu kontak!
XATUR: Eseri dedilla lenengo. Ea emen lekua! (*eser, lekua erakutsiaz*).
FILO: Trenean amar orduan eserita etorri nazaizu eta zutik naiago pizkatean.
XATUR: Geiago azi bear al den?
LUTXI: Azi ez, naikoa egin den. Galarretako berriak esaten asi bai.
FILO: Ori den presa! Gañera luze uke guzia esatea. Ez zekiñat nundik asi. Pizkana-pizkana gogoratuko zaizkidan. Zuek esan bear dizkidatzue emengo gora-berak. Nik ere noiz bait Madridera iritxi bear niñan. Eskerrak gaixo egon aizanala, beste-la ez niñunan sekula zulotik aterako.
XATUR: Neskaren aterakaia! Entierroa etorri nai. (*Par dagite*).
LUTXI: Eta amak nola artu zizkiñan nere berriak?..
FILO: Nola? Egun txarra igaroaz. Azkenean izebari telefonoz deitu zionan eta Madridera etortzea erabaki zitenan. Nik, egia esateko, ez niñan sinisten oso gaixo engonanik. Eta Madridera etortzeak poztutzen zidan biotza.
XATUR: Ori den gauzak garbi adieraztea! Bapo! Filo. Asmatu den erdi-erditik.

LUTXI: Guzientzat obe. Kezka bat bakarrik gelditzen zaidan. Amak zer esango ote didan. Beldurrez natxion.
FILO: Ago lasai! Asarrea izeba monjarekin lertu zaion bidean; eta onera orduko bare-bare besakartuko au alaba maite-maitea
XATUR: Ori komeni zaigun neska! zuen izebatxo monja umil-umil etorri dedilla. Aren galderai erantzuten aski lan izaten diñat: zenbat irabazten dedan, norekin nabillen, noiz etxeratzen naizen, nor etxeraten. Ni «ardi-galdutzat» bai natxeukan.
LUTXI: Bide onera ekararazi nai au, nunbait.
XATUR: Bide ona arentzako komentura daramana besterik ez. Ondo jaiok gatxeuden, Lutxi.
LUTXI: Nork zekin?
FILO: Ez dezute monjagai itzurik. Madritarren atzetik ibiltzen bai asiko ziñaten.
XATUR: Ara bestea! Onak aterako zizkigun eltzetik babak.
LUTXI: Ama aurrean ez dagola ajolagabetu den gure goiz-ollanda.
FILO: Ama? Onuzkero ez den urruti, eskalleretan gelditu baditun ere.
XATUR: Eskalleretan ezik ate joka ari dirala esango niken.
FILO: Berak dizkiñagu orduan (*ateruntz joanez*).
LUTXI: Ai! nere larria! Biotzak zirrada egiten zidan.
XATUR: Ago lasai. Eseri adi. (*Ateruntz abiatzen dirala*)

IX. AGERRALDIA

LENGOAK AMA TA SOR PAULE

DOMINI ANDREA: Oso goian bizi zerate.
LUTXI: (*besarkatuaz*) Ama! amatxo
DOMINI ANDREA: Ai alaba! alaba! Amaika buruauste eman dizkidazu. Eta onela onik ikusten zaitudanean Lezoko Santo Kristori eskerrak ematen dizkiot... Uste izan nuen..
SOR PAULE: Beti izan bear degu Jaungoikoagan uste osoa.
DOMINI ANDREA: Bukatzen uzten al didazu bada. Monjak azken itza bere.
FILO: Ama ez zaitezela errietan asi Madridera iritxi eta bereala.
SOR PAULE: Ori maite-asarrea da ez errieta.
XATUR: Beti degu zer ikasia.



LUTXI: Eseri zaite ama! Nekaturik zaude ta patxaran jartzea obe.

DOMINI ANDREA: Neri aña komeni zaizu zuri ere (*eseri bitez biak elkarren ondoan*). Indarrak egiten ari al zaizkitzu?...

LUTXI: Bai ama ni erabat sendaturik nago. Zuek negu ona pasatu al dezute?

DOMINI ANDREA: Jainkoari eskerrak gaitzik gabe. Orain adin bat ezkeronork ez ditu ajeak?. Eta nereak ere ugaritzen doaz.

LUTXI: Iñor ez da gaztetzen, baiñan ez du beorrek itxura txarrik. Joan dan udaran baño gizenago arkitzen det. Bapo dago ama

DOMINI ANDREA: Bai, primore!

FILO: Ala dago-ta! Ongi dabil aspaldi, ama eta apetitu onarekin jaten du.

SOR PAULE: Bi alabek diotenean egia izango da. Nik ere onik arkitzen zaitut. Arpegia beteagoa.

DOMINI ANDREA: Zuen aldean bai. Batik bat Lutxi txaldana zaude; eta matrailezur oiek geiegi ageri zaizkitzu. (*Xatur!*) Jateko gogorik bai al du?

XATUR: Ortatik dabil urri.

DOMINI ANDREA: Bada zintzurretik sartu bear zaio egaztia bezela.

FILO: Pipar-erroskillak ekarri dizkitzugu.

SOR PAULE: Inyekzioak artzen asia da eta on egingo die.

DOMINI ANDREA: Txuleta onak jatea obe; eta gero ar dezala aize garbia, etxe zuloan sartuta egon gabe.

LUTXI: Ama, guzia batean ezin egingo det. Sukarra joana zait eta orain asiko naiz iaten eta aizea artzen.

FILO: Ori! ori! Kalera elkarrekin atera bear diñagu. Madridero bazterrak ikusteko gogotan natxion. Zerbait agertzen unan taxitik. A zer nolako etxe eta denda ederrak zeuden. Eta kaletako jende eta auto pillak. Batetik bestera igarotzen kosta zaidan!

LUTXI: Bai bai joango gaitun.

SOR PAULE: Aizpa gaztea ez dezu beldurrez atzean gelditzen danetakoa.

DOMINI ANDREA: Ez orixe! Ez dezu gelditzen ta nekatzen dan oietakoa!

SOR PAULE: Gaztea izaki!! Bere bideak arrapatuko du.

FILO: (*Lutxiri*) Etxe ontatik ez alda «bixtarik» agertzen?

XATUR: Ori da ume begi-luze! Gutxi al da zerua zapaitik ikustea?

SOR PAULE: Ori da munduan degun ikuskizunik ederrena.

LUTXI: Or atzekoaldean Ieio bat kalera ere badegu. (*Filori*) Goazeman gelara eta erakutsiko diñat.

DOMINI ANDREA: Zoazte bai, bestera ez gaitu pakean utziko eta.

LUTXI: Amak eta biok nun lo egin bear dezuten ere erakutsiko dizuet.

XATUR: Leio ortatik erregeen palazioa ere ikusten da.

FILO: Auzo onean bizi zerate orduan.

XATUR: Ain onean! katuz inguratuak. Goian gatxeuden eta guzia agertzen zaigun. Baita Guadarrama mendia ere.

FILO: Ez ordea itxasorik!

LUTXI: Baita zera ere.

(*Bijoaz Lutxi, Xatur eta Filo*).

X. AGERRALDIA

A. DOMINI ETA SOR PAULE

DOMINI ANDREA: Bada, egia esateko, ez zait batere gustatzen Lutxiren itxura. Ez dio onik egin Madrilgo egonaldiak.

SOR PAULE: Madridero ez du errua. Giro osasungarria dezu auxe. Grippe arrapatu duala ta ori da guzia.

DOMINI ANDREA: Bai, bai baiñan sendatzeko gurekin etxera eramatea obe. Jatena emango diogu eta indartuko da.

SOR PAULE: Amaren ondoan bezin ondo iñon ez. Jakiña! Baiñan seme-alabek ez dira ama-zurregi ezi bear. Etorkizunari ere begira bear zaio. Lutxi emen asko ikasten ari zan eta nork daki...

DOMINI ANDREA: Ez, ez! Ez det nai alaba bizi guzirako argal eta erixko ikusi nai. Naiz asko ikasi eta are geiago irabazi.

SOR PAULE: Arazo oietan ez biotzez buruz baizik joka bear da. Ez det uste orain Lutxi zerekin eramatea dagokizunik. Sendabidean doala ikusten dezu. Madridero jarrai dezala naiz etxez aldatu.

DOMINI ANDREA: Zera! Hotel Palacera bidaliko degu. Ez, ez! etxera! etxera!

SOR PAULE: Begira Domini, ez uste ni ere konporme nagonik Lutxi tellatupe ortan bizi dedin. Gañera (*isillago*) Xatur ez du komeni zaion laguna. Nola esango dizut, ez da neska gaizto lotsagaldurik oietakoa, baiñan gaztea eta kaxkarin eta ergel zamarrak bai. Erretiro gutxikoa. Eta Madridero neskatxa baka-rrerentzat arrixko aundiak daude.



DOMINI ANDREA: Zu leia ziñan bada gurea onuntz ekarri arazten. Modista gallena egingo zala eta abar.

SOR PAULE: Ikasteko etxetik ateratzea gazteari onuragarri zaio. Orain nundik nora dabillen jakíñez-eta norekin bizi dan zainduaz.

DOMINI ANDREA: Xaturetzaz ez det ezer txarrik entzun. Alaia dala? dantzazale? neska-mutil? pelotaria?...

SOR PAULE: Gutxi al derizkiozu?

DOMINI ANDREA: Gaztetasunak darabila! Ez da arritzekoa.

SOR PAULE: Ez al dakizu iri aundi auetan oitura galgarriak diranik? «Bonbillako» dantzaldiak...

DOMINI ANDREA: Bonbillan? Obe da argitan dantzatzea illunpetan baño.

SOR PAULE: Au ez da Galarreta! Ezagun da ez dakizuna Madrid zer dan! Neskatxa bakarrak bizitzeko beldurgarri. Lutxik beste nunbait jarri bear luke bizitzen. Eta etxe berria arkitu atean komentura eraman nezake.

DOMINI ANDREA: Ori al zenun gorderek zeneukan dambada «atomikoa». Lenago lertu arazi besterik ez zenun. Zeorrek ekar arazi zendun Madridera, komentuan sartzeko al zan? Jostundegi ta modetan trebetuko zan noski, Galarretako aña, beraz lenbaitlen etxera dedilla ta kito

SOR PAULE: Ez nere esanak gaizki artu, aizpa. Obe bearrez izan bait da Bestela uste badezu ez det zure borondatearen aurka joan nai. Zaude lasai. (*Zin egíñez*) Aitaren eta semearen... Jainkoak daki nere asmo zuzenaren berri. Amabirgiña dala bitarteko.

DOMINI ANDREA: Eta «Irutasan» osoak gaitzala eskutik. Alabitz! (*atean joka ari diran otsa entzun bedi*). Oso gora igo gaituz aizpa eta emen lurrean ate joka ari zaizkigu. Ez dakit emengo berri.

SOR PAULE: Joango naizazu irikitzera. (*atea zabaldurik*) Erroxali! Zu al zaitugu!

XI. AGERRALDIA

LENGOAK ETA ERROXALI

ERROXALI: Bai Sor Paule. Ni zazu! Ezin joan izan naiz eztaziora eta onera agertu bat egitea bururatu zait Andre Dominiri eta arpegia ikustera. (*A. Dominiri*) Zer modu? (*Elkar besarkatuaz*).

DOMINI ANDREA: Ez zu bezin ondo! bañan, tira! Madridera etortzeko aitzekia izan degu eta emen gaituz kezkaz beterik.

ERROXALI: Gaizkitze! Zerbada, beti errian sartuta? Lutxi bizkortzen ari da egunetik egunera. Orrek ez dizu kezkik eman bear. Sendaturik dago.

DOMINI ANDREA: Osasunez obeto jarri ba da ere neska orrekin zer egin erabaki bearko degu.

SOR PAULE: Uste osoa Jainkoagan ipini bear degula esaten ari natzaizu. Ez alde zurretik zere burua larritu.

DOMINI ANDREA: Errezago da esatea aizpa. Zu Sor baitzaitugu ta ni Ama...

SOR PAULE: Aragiz ala da, bañan gogoz beñepein amatzat leia nai nuke nik ere.

ERROXALI: Ala bearrez, nun dituzue neskatxa gazteak?

DOMINI ANDREA: Zuk kirakoak nai eh? Ba «gazteak» or dabilta atzeko leioan edo. Filori bixtak erakutsi nai zizkiela-ta.

ERROXALI: Orduan tellatura igoko ziran. Andik ikusbegi aundia ageri bait da. Filo aspertu egiñik egongo da.

SOR PAULE: Gazteak itzuli ditezen bitartean ondo egingo degu eseritzea.

ERROXALI: Ez nago nekaturik bañan nai badezute. (*eseri bitez*).

DOMINI ANDREA: Erroxali! era bat madritarra egiñik zaudela ikusten zaitut: soñeko apain, zapata pin eta orrazkera txukun...

ERROXALI: (*arro*) Alajaña! nai litzake! ea ogeitamar urte daramazkit eta aundikiren tartean...

SOR PAULE: Udarero errira gogoz joaten zera bada Madrid utzita.

ERROXALI: Monjak ere ez zerate atzean gelditzen ibilli kontu ortan...

SOR PAULE: Agintzen digutenean... Amar urte oietan bein izan naiz Galarretan, eta bai pozik ere! Igaz!

DOMINI ANDREA: Gure txokoa bezelakorik ez dagola aitortzen dezutenean. An nago bizi guzian txilborretik lotuta. Ez zuek bezela.

ERROXALI: (*par egíñez*) Ja! ja! ja

SOR PAULE: Ori aterakiaiki ditu gure aizpak! Txilborraren orde esazu biotza. Iparragirrek zion eran: «bañan biotzak dio zoaz Euskalerrira».

ERROXALI: Biotza! Berri on bat ba-det zuentzako. Zorionak eman bear dizkitzuet.

DOMINI ANDREA: Zorionak guri? Jainko maitea! ez gabiltza bada aspaldi oso zoriontsu.



SOR PAULE: Ari zor diogu zorion guzia eta eman bear dizkiogu eskerrak.

ERROXALI: Ez dakizutela zergatik? Ezetz asmatu.

DOMINI ANDREA: Ez dakit bada.. Ez naiz ezertaz oroitzen...

ERROXALI: Ematen?...

SOR PAULE: Bai, bai. Lenbaitlen esan zazu gu irrikitzen euki gabe.

ERROXALI: Ba, ba.. Lutxi.. eta... Xabier berriz adiskidetu dirala... eta mutilla beñere baño «enamoratua» dagola zure alaba Lutxitzaz..

SOR PAULE: Zorioneko «maite-miña». Biotz-berak izaki oraingo gazteak.

ERROXALI: Oraingoak eta betikoak. Obe da ori agiñekomiña baño.

DOMINI ANDREA: Zuk iñundik jakiten dituzu isil-kontu oiek. Aurreratua bizi zera.

ERROXALI: Madrillen bizituaz Galarretako albistiak zuek baño lenago jakiten ditut. Eta iturri onetik gañera.

DOMINI ANDREA: Ez dizut ezetz esaten. Pamilikoak izan oi gera orrelako berriak jakiten azkeneko...

SOR PAULE: «Grippe» ezik zure alabak zer zuan badakigu orain: «biotzekomiña». Ez da ala Erroxali?

ERROXALI: Jakiña! Oraintxe dago adinean.

DOMINI ANDREA: Jesus! milla bider! (*asperenka*) Nere alperrikako larria

SOR PAULE: Lasatu ta poztu zaite. Eta ni zurekin! Lutxik ezkontzarako deia duala garbi ikusi da. Eta iñoiz esan ba-didazute ere nik komentura eraman nai nuela. Ez da olakorik. Jarrai zala aukeratu dun bidea. Jaungoikoaren bidea da ori ere. Zerua irabazi diteke era guzitara eta askotan praille-monjak baño sarigarrigo izango dira ezkontutakoak.

DOMINI ANDREA: Edo ta mutil ala neska-zar gelditu diranok.

ERROXALI: Neregatik al diozu ori?

DOMINI ANDREA: Ez andrea, ez! Zu «gai» zaude oraindik.

ERROXALI: Ez dakit «gai» nagon, bañan zure alabaren ezkontzara joango naizela bai. Nere burua kombidatzen det.

DOMINI ANDREA: Eskubidea ba-dezu eztaietan lekuko izateko. Soineko ederra, kanela koloreko sedazko ere... bai apain-apain agertzeko.

ERROXALI: Ura gau-jaietakoa det. Elizkizunerako bestelako bear da.

DOMINI ANDREA: Izango dezu aukera.

SOR PAULE: Guk alde ederra badizuegu ortan. Beti jantzi bera. Modako buru austerik ez.

ERROXALI: Ezta illeak kixkurtu bearrik.

SOR PAULE: Burukoa plantxatu bearrik ematen dizkigu lanak. ordea...

DOMINI ANDREA: Ez dakit noiz kendu bear dizkizuen egal oiek.

XII. AGERRALDIA

LENGOAK, ETA LUTXI, XATUR ETA FILO

FILO: (*Lenengo sarturik*) Erroxali ere emen degu-ta! Madriden ezik badirudi Gallarretann gaudena! Erroxali! (*elkar besarkaturik*).

ERROXALI: Zu ari zera neskatxa ederra egiten!

FILO: (*Irritsu*) Beñere itsusi izan al naiz bada?...

DOMINI ANDREA: Gure errian «arto bero-usaia» zeñi esaten zaion badakizu.

ERROXALI: Ama bezela ez ba-zaude ba, kontentu...

DOMINI ANDREA: «Beti kontentu».

SOR PAULE: Ez dira gazteen buruak arrotu bear...

FILO: Ea burua txorabiatu zait goi ortan. Tellatutik Madrid erdia ikusi degu. Xatur eta Lutxi ba-datoz. (*Sartu bitez*).

LUTXI: Ganbaratik ere zure boza entzuten zan Erroxali.

XATUR: Ezta irrintzia balitz ere.

ERROXALI: Isilik ez nintzan etorriko zuek ikustera. Zer iruditu zaizu Madrid?

FILO: Or goitik Errege-Jauregia, Telefonica eta Elizkampañtorreak besterik ez dira ageri. Lenbaitlen kaleak eta dendak ikusi nai ditut.

DOMINI ANDREA: Ez ziñan jaio etxean geldirik egoteko beintzat.

XATUR: Nik lagunduko det. Laister joan bear bai det. Orrela lasago itzegingo dezute familiko gauzatzaz.

DOMINI ANDREA: Ez, ez! geldi zaitetze. Orregatik beinik bein. Etxekotzat zauzkagu guziok... Esan bada esateko guziak.

ERROXALI: Emen mintza bear duna Lutxi degu.

LUTXI: Ni? Zer bada? (*Jotsatuaz*).

ERROXALI: Ez al degu ezer berri?

LUTXI: «Zaarrak berri...»

ERROXALI: «Gazteen errabigarri...» Ez zazula zure burua ez jakintzat egin...

SOR PAULE: Iñor ez dago beartua guzien aurrean barnean duana aitorzera. Garaia etortzean bere amari esango dio ta! kito!



DOMINI ANDREA: Gurasoak askotan beranduen jakiten ditugu seme-alaben gora-berak.

XATUR: Lutxi! ziztada guziak iretzat dirala zirudinen... Olakotan oiala zirtzart ebakitzea obe jostunen moduan.

LUTXI: Guziok neri begira zaudeten ezker, lotsaarazteko aña ba-da, bañan esango dizuet Xabierekin adiskidetu naizela...

XATUR: Isilik gorde den!

ERROXALI: Ez al nuen arrazoi Domini? (*besakarturik*)

LUTXI: Ez nintzan deia egiten asiko erriko danbor-jotzaillarekin!

DOMINI ANDREA: (*Malkoa dariola*) Etxekoak ordea jakin bear genuke kampokoak baño lenago.

SOR PAULE: Oraingoan Lutxiren alde nago. Gauza oietan zur eta kontuz jokatzera ainbat on!

FILO: Nik banekin ama!

DOMINI ANDREA: Zergatik ez zenidan esan bada?

FILO: Esan izan banizun ez ginan Madridera etorriko-ta. Ba-nuen Puerta del Sol ikusteko gogoia (*guziok par egiten dutè*).

DOMINI ANDREA: Ederra egin didazute bi alaben artean. Alperrik Madridera etorri arazi ainbeste txanpon txautzera..

ERROXALI: Zertarako dituzu bada! Orrela egurastu zera etxetik kampa egun batzuek igaroz. Zer ba? beti txokoan sartuta egon bear al dezu. Alargundu ziñanetik ez ziñan askotan atera izango.

DOMINI ANDREA: Alaxen da. Ikusgarri da Madrid au...

FILO: Noski eta ikusi bear dituzu bazter guziak.

SOR PAULE: Bi alabak besoz-beso artuta kalez-kale ibilli bearko dezute.

XATUR: Gaizkitxe! Alaba ezkondu aurretik.

LUTXI: Bai ama!

DOMINI ANDREA: Etorri geran ezker ezer ikusi gabe ezin joango gera etxera bañan lenbaitlen itzultzea nai nuke...

SOR PAULE: Ez utzi beintzat «Cerro de los Angeles» ikusi gabe

XATUR: Eta «Chamartingo Stadium...

SOR PAULE: eta Eskorrial... San Franzisko aundia...

DOMINI ANDREA: Ni naramaten leku guzitara joango natzaizue.

ERROXALI: «Erretiro» ere oso ederra dezu.

DOMINI ANDREA: «Erretiro» onena gure adiñean etxekoa. (*par dagite*)

XATUR: Madritarrok ere olako txistek egiten dituzte. (*berriz algaraz*)

SOR PAULE: Emen isil dagona eta parrik egiten ezduna Lutxi degu. Zuk ere etxera joan naiko dezu alik eta laisterren...

LUTXI: Bai bada. izeba emen bear nuen guzia ikusi eta ikusi det.

ERROXALI: Eta an... norbait zai daukagu.

LUTXI: Egia da.

DOMINI ANDREA: Emen modista baño an jostuna obe.

ERROXALI: «Madridetik zerura» da esaera.

DOMINI ANDREA: Lur ontan zerua jaiotetxean dago, sorterrian, gurason itzalean, seme-alaben ondoan. Madrid ona bada, lur ontako paradisia Galarretan daukagu.

SOR PAULE: Eta gero zeruan gerta gaitetzela guziok egun batez.

AMAIA